**Bizkaiko Foru Aldundiaren 210/2015 FORU DEKRETUA, abenduaren 22koa. Honen bidez, norberaren autonomia sustatzeko jardueren bidez, boluntarioen bidez eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzako laguntza psikosozialaren bidez, familia barruko mendetasunari laguntzeko Zainduz programa forala Bizkaiko Lurralde Historikoan 2016. urtean garatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.**

ZIOEN AZALPENA

Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua lehen mailako arretako gizarte-zerbitzu moduan agertzen da jasota Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.1.4 artikuluan ezarritakoarekin bat. Lege bereko 42.4 artikuluan eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan ezarritakoarekin bat, zerbitzu hori udalek eman behar dute, zeinek bere udalerrian.

Bestalde, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikuluak ezartzen du aldundien berezko eskumenak direla, besteak beste, bai udal-zerbitzuak beren artean koordinatzea —zerbitzuak modu integral eta egokian betetzen direla bermatzeko—, bai udalerriei laguntza eta lankidetza juridiko, ekonomiko eta teknikoa ematea —ekonomiaren aldetik eta kudeaketarako gaitasun txikia dutenei, bereziki—, bai eta probintziako lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta plangintza egiteko lankidetza ematea ere. Bada, horretarako guztirako, aldundiek diru-laguntzak eta laguntzak eman ahal izango dituzte beren funtsen kontura; diru-laguntza eta laguntzok plan bereziez zein bestelako berariazko tresnez baliatuz egituratutako dira. Horrela, diru-laguntzak ematea ezartzen du foru dekretu honek, eta diru-laguntzok oinarriotan jasotzen diren diru-laguntzaren hitzarmen arautzaileak formalizatuz protokolatuko dira.

«Zainduz» programa foralaren helburu orokorra da zenbait jarduera, prestazio eta zerbitzu modu homogeneoan garatzea Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremu geografikoan, beren etxeetan bizi diren eta mendetasuna duten adinekoei eta haien familiei eta zaintzaileei laguntzeko. Helburua da, hain zuzen ere, zaintza efektiboa eta gertukoa eskaintzea eta adinekoak beren etxeetan gera daitezela lortzea, haien bizi kalitatea hobetzearren. Hala, instituzionalizazio beharra saihestuko da, edo, behintzat, txikiagotuko da.

Baina maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20. artikuluan aurrez ikusitako norgehiagoka prozedura ez da prozedurarik egokiena garapen homogeneoa lortu gura bada Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan. Beraz, diru-laguntzaren izaera aintzat hartuta, egokiagotzat jotzen da norgehiagokarik gabeko prozedura aukeratzea: funtsak eskabideak jaso ahala banatuko dira, baldin eta oinarri arautzaileetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte, eta onartutako aurrekontuko zuzkidura muga dela.

Dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Horrez gainera, kontuan hartu da azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatzen dena, eta, hala, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena gehitzen zaio haren tramitazioari, foru dekretu horren 2. artikuluak aipatzen duenari jarraituz.

Aurretik azaldu denagatik, Gizarte Ekintzako foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2015eko abenduaren 22an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

**1. artikulua.- Dekretuaren xedea**

Foru dekretu honen xedea hau da: 2016. urterako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onartzea, norgehiagokarik gabeko araubidean, bermatu ahal izateko modu homoge-

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 210/2015 de 22 de diciembre, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria pública de subvenciones para el desarrollo del programa de atención a la dependencia en el medio familiar mediante actuaciones de promoción de la autonomía personal, voluntariado y de apoyo psicosocial a las personas cuidadoras de personas dependientes en el Territorio Histórico de Bizkaia, programa foral Zainduz, para el año 2016.**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El servicio de apoyo a personas cuidadoras se encuentra recogido como un servicio social de atención primaria dentro del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, de acuerdo con lo establecido en el artículo 22.1.4 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales. En consonancia con lo establecido en el artículo 42.4 del mismo precepto legal, así como en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios sociales del Sistema Vasco de Servicios Sociales, la provisión del citado servicio es competencia de los ayuntamientos, en el ámbito de sus respectivos términos municipales.

Por otro lado, el artículo 36 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, asigna a las Diputaciones, entre otras funciones, la coordinación de los servicios municipales entre sí para la garantía de una prestación integral y adecuada de los mismos, la asistencia y cooperación jurídica, económica y técnica a los municipios, especialmente a los de menor capacidad económica y de gestión, así como la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social y en la planificación del territorio provincial previendo, para tal fin, otorgar subvenciones y ayudas con cargo a sus fondos propios para la realización y el mantenimiento de obras y servicios municipales, que se instrumentarán a través de planes especiales u otros instrumentos específicos. En este sentido, el presente Decreto Foral, prevé la concesión de subvenciones que se protocolizarán a través de la formalización de los convenios reguladores de la subvención que las presentes bases contemplan.

El Programa Foral «Zainduz» tiene como objetivo general lograr el desarrollo homogéneo, en el ámbito geográfico del Territorio Histórico, de una serie de acciones, prestaciones y servicios para atender y apoyar a las personas dependientes residentes en sus domicilios, y a sus familias o personas cuidadoras, con la finalidad última de facilitar un cuidado efectivo y cercano, y conseguir el mantenimiento de estas personas en su hogar mejorando su calidad de vida, evitando o, al menos, disminuyendo, la necesidad de institucionalización.

En este sentido, la concurrencia competitiva prevista en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, no es el procedimiento más adecuado a efectos de garantizar el desarrollo homogéneo en los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia. Por tanto, dada la naturaleza de la subvención, se considera más adecuada la elección del procedimiento de libre concurrencia, distribuyéndose los fondos según se reciban las peticiones, siempre y cuando reúnan los requisitos establecidos en las bases reguladoras y con el límite de la dotación presupuestaria aprobada.

El presente Decreto Foral incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, de forma que en su tramitación se incorpora el informe de evaluación previa del impacto en función del género al que hace referencia el artículo 2 del citado Decreto Foral.

Por lo expuesto, a propuesta de la diputada foral de Acción Social y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral de Bizkaia, en su reunión de fecha 22 de diciembre de 2015,

SE DISPONE:

**Artículo 1.—*Objeto del Decreto***

Es objeto del presente Decreto Foral aprobar las bases reguladoras y la convocatoria pública de subvenciones para el año 2016, en régimen de libre concurrencia, a efectos de poder garantizar el

cve: BAO-BOB-2016a008

neoan garatzen dela familiaren baitako mendetasun-egoerei arreta emateko programa, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, mankomunitate eta partzuergoek egingo dituzten prebentzio-jardueren, boluntarioen eta adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzako laguntza psikosozialaren bidez, hain zuzen ere.

Erakunde onuradunek baldintza jakin batzuk bete behar dituzte finantzaketarako eta zerbitzuak emateko —denentzat berdinak dira baliabideok—; beraz, kasuan kasuko diru-laguntza maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26. artikuluan ezarritako hitzarmenetako baten bidez zehaztu behar da (foru arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du).

**2. artikulua.—*Zainduz programa foralaren definizioa eta helburu orokorra***

Programa sortu zen mendetasun-egoerak familia barruan artatzeko eta mendeko adinekoen zainketaz arduratzen diren zaintzaileei laguntzeko. Horretarako, erantzukizun publikoko jarduera, prestazio eta gizarte-zerbitzuak daude, eta haien guztien helburua da aldi berean eragitea, zainketaren kalitatea hobetzeko eta zainketak jasotzen dituen pertsonak bere inguru sozial eta familiarrean jarraitzeko.

Programaren helburu orokorra da zenbait jarduera, prestazio eta zerbitzu modu homogeneoan garatzea Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremu geografikoan, beren etxeetan bizi diren eta mendetasuna duten adinekoei eta haien familiei eta zaintzaileei laguntzeko. Helburua da, hain zuzen ere, zaintza afektiboa eta gertukoa eskaintzea eta adinekoak beren etxeetan gera daitezela lortzea, haien bizi kalitatea hobetzearren.

**3. artikulua.—*Zainduz programa foralaren helburu espezifikoak eta hartzaileak***

1. Hauek dira programa foral honen helburu espezifikoak:

a) Mendetasuna prebenitzea, edo, ahal den neurrian, hura larritzea edo areagotzea ekiditea, teknika edo programa psikosozialak erabiliz.

b) Gizartea mendetasuna duten pertsonen zaintzaren inguruan sentsibilizatzeko jarduerak.

c) Mendetasuna duen senide bat zaintzen duen familiari laguntza espezializatua eta gertukoa eskaintzea.

d) Mendetasuna duen pertsona familia- eta gizarte-ingurunean gera dadila sustatzea.

e) Modu koordinatu eta eraginkorrean erabiltzea Bizkaiko Lurralde Historikoan mendetasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat dauden gizarte-baliabideak.

2. Oro har, Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldaturik dauden hiritarrak izan daitezke programaren hartzaile eta, bereziki, mendetasuna duten adinekoak eta haiek zaintzen dituzten familiak.

**4. artikulua.—*Erakunde onuradunak***

Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, mankomunitate eta udalpartzuergoak izan daitezke diru-laguntza hauen onuradun; horretarako, honako hau erabaki behar dute: bakoitzari dagokion lurralde-eremuaren barruan, autonomia pertsonala sustatzeko jardueren bidez, boluntarioen bidez eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzako laguntza psikosozialaren bidez familia barruan mendetasunari laguntzeko programa foralaren prestazioak ematea.

Halaber, erakunde onuradunari lotutako pertsona batzuk ere izan daitezke onuradun, baldin eta diru-laguntza emateko zio diren jarduera guztiak edo batzuk onuradunaren izenean eta kontura egiteko konpromisoa hartzen badute.

**5. artikulua.—*Diru-laguntzaren hitzarmen arauemaileak***

Diru-laguntzak gauzatzeko, hitzarmen arauemaile bat formalizatuko da, foru dekretu honetako 1. eranskineko ereduarekin bat, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak horretarako erabakia hartu ondoren, oinarri hauetako 11. artikuluan zehazten den

desarrollo homogéneo del programa de atención a la dependencia en el medio familiar en todo el Territorio Histórico de Bizkaia, mediante actuaciones de promoción de la autonomía personal, voluntariado y de apoyo psicosocial a las personas cuidadoras de personas dependientes que lleven a cabo los ayuntamientos, mancomunidades y consorcios municipales del Territorio Histórico de Bizkaia.

La exigencia de financiación y prestación de servicios en determinadas condiciones, que sean iguales para todas las entidades interesadas, determina la necesidad de la concreción de la subvención a través de un convenio de los previstos en el artículo 26 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

**Artículo 2.—*Definición y objetivo general del programa foral «Zainduz»***

El programa se concibe como un programa de atención a la dependencia en el medio familiar y apoyo a personas cuidadoras de personas dependientes, integrado por acciones, prestaciones y servicios sociales de responsabilidad pública, cuyo objetivo es incidir de forma concurrente en la mejora de la calidad del cuidado y la permanencia de la persona cuidada en su entorno social y familiar.

El objetivo general del programa persigue lograr el desarrollo homogéneo, en el ámbito geográfico del Territorio Histórico de Bizkaia, de una serie de acciones, prestaciones y servicios que sirvan para atender y apoyar a las personas dependientes que residan en sus domicilios y a sus familias o personas cuidadoras, con la finalidad de facilitar un cuidado afectivo y cercano, y conseguir el mantenimiento de estas personas en su hogar mejorando su calidad de vida.

**Artículo 3.—*Objetivos específicos y población destinataria del programa foral «Zainduz»***

1. Son objetivos específicos del presente programa foral:

a) Prevenir, mediante la utilización de técnicas o programas psicosociales, la aparición de la dependencia o retrasar, en la medida de lo posible, su agravamiento o avance.

b) Promover acciones de sensibilización social sobre el cuidado de las personas dependientes.

c) Prestar un apoyo especializado y cercano a la familia cuidadora de una persona dependiente.

d) Promover la permanencia de la persona dependiente en su entorno familiar y social.

e) Utilizar de forma coordinada y eficiente el conjunto de recursos sociales existentes en el Territorio Histórico de Bizkaia destinados a las personas dependientes y sus familias.

2. La población destinataria del programa es la ciudadanía en general y, en particular, las personas dependientes y sus familias cuidadoras que se encuentren empadronadas en el Territorio Histórico de Bizkaia.

**Artículo 4.—*Entidades beneficiarias***

Podrán adquirir la consideración de entidades beneficiarias de estas subvenciones los ayuntamientos, mancomunidades y consorcios municipales del Territorio Histórico de Bizkaia que acuerden realizar, dentro de sus respectivos ámbitos territoriales, las prestaciones que integran el programa foral de atención a la dependencia en el medio familiar mediante actuaciones de promoción de la autonomía personal, de voluntariado y de apoyo psicosocial a las personas cuidadoras de personas dependientes.

Tendrán igualmente la consideración de entidades beneficiarias las personas asociadas de la entidad beneficiaria que se comprometan a efectuar la totalidad o parte de las actividades que fundamentan la concesión de la subvención en nombre y por cuenta de la primera.

**Artículo 5.—*Convenios reguladores de la subvención***

Las subvenciones se concretarán en la formalización de un convenio regulador de las mismas, de acuerdo con el modelo que figura como Anexo 1 del presente Decreto Foral, previo acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Biz-

cve: BAO-BOB-2016a008

bezala; beraz, diru-laguntza hauek hauen arabera arautuko dira, eta hurrenkera horretan: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, arau hori garatzeko araudia eta aplikatu beharreko gainerako araudia, eta, gainera, oinarri arautzaile hauetan ezarritakoaren eta hitzarmen horretan jasotakoaren arabera.

**6. artikulua.—*Programaren edukia eta metodologia***

1) Edukia: Autonomia pertsonala sustatzeko jardueren bidez, boluntarioen bidez eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzako laguntza psikosozialaren bidez familia barruan mendetasunari laguntzeko programan (Zainduz programa forala) honako jarduera, prestazio eta zerbitzu hauek (azpiprogramak) sartzen dira:

1. Autonomia pertsonala sustatzeko ekintza, prestazio eta zerbitzuak. Ekintza hauen helburua hau da: mendetasun-egoerak agertzea edo larritzea prebenitzea, batetik, eta, bestetik, eskumenak dituzten administrazio edo erakundeen artean garatzea, modu koordinatuan, bai autonomia pertsonala eta bizi-baldintza osasungarriak sustatzeko jarduketak —hala adineko pertsonei nola biztanle guztiei zuzenduta—, bai eta prebentzio- eta berregokitze-zerbitzu eta -programa psikosozial espezifikoak ere —adinekoei zuzenduta— . Azpiprograma honetatik kanpo geratuko dira adinekoen elkarteek egindako ekintza eta zerbitzuak zein haiek emandako prestazioak; izan ere, aurreko horien ekintza, prestazio eta zerbitzuak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak 2016. urtean egindako deialdi publikoaren barruan sartuko dira.

— Helburu orokorra: Mendetasuna duten pertsonen zein herritar guztien autonomia pertsonala sustatzea.

— Helburu zehatzak:

• Mendetasuna ager dadila prebenitzea, herritar guztien artean ohitura osasungarriak sustatzeko egingo diren programen bidez.

• Dagoeneko mendetasun-egoeran dauden 60 urtetik gorako pertsonen artean, gaixotasunak aurrera egitea atzeratzea, eta, horretarako, pertsona horiek ahalik eta denbora gehienean autonomoak izan daitezela lortzea.

• Mendetasun-egoeran dauden eta etxean zaintzen dituzten pertsonak beren eguneroko bizitzako jardueretara egokitzeko prozesua erraztea.

2. Gizartea, oro har, mendetasunaren eta haren zaintzaren gainean informatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak. Mendetasunaren eta haren zainketaren inguruabarrak gizarteari ezagutarazteko ekintzak dira, eta, horretarako, zaintzaileen egoera ikusarazi eta zaintzaren gaineko erantzunkidetasuna sustatzen dute.

— Helburu orokorra: Mendetasuna duten pertsonen, mendetasunaren, zaintzaren eta familiaren inguruan gizartean agertzen diren ideien, sinesmenen eta ikuspegiak aldatzen laguntza.

— Helburu zehatzak:

• Herritar guztiak sentsibilizatzea mendetasuna duten pertsonak zaintzean sortzen diren egoeren inguruan.

• Informazioa ematea, hala mendetasunak pertsonei ekartzen dizkien ondorioen gainean, nola eguneroko bizitzako jarduerak egiterakoan autonomia sustatzeak duen garrantziaren gainean.

• Mendetasuna duten pertsonen etengabeko zaintza jarraituak dakartzan ondorio fisiko, psikiko eta sozialak ikusaraztea.

• Familiaren egituran eta dinamikan sortutako aldaketen inguruko hausnarketa egitea eta erantzukizunak familiako kide guztien artean partekatu daitezela bultzatzea.

• Mendetasuna duten pertsonei eta zaintzaile diren familiei laguntzeko sare sozial eta familiarrak sortu eta mantentzearen alde egitea.

kaia, tal y como figura recogido en el artículo 11 de las presentes bases, por lo que estas subvenciones se regirán, además de por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y su normativa de desarrollo y demás que resulte de aplicación, por lo dispuesto en las presentes bases reguladoras y por lo recogido en el mencionado convenio, respetando el orden citado.

**Artículo 6.—*Contenido y metodología del programa***

1) Contenido. El programa de atención a la dependencia en el medio familiar mediante actuaciones de promoción de la autonomía personal, voluntariado y de apoyo psicosocial a las personas cuidadoras de personas dependientes (Programa Foral «Zainduz»), está integrado por las siguientes acciones, prestaciones y servicios (Subprogramas):

1. Acciones, prestaciones y servicios de promoción de la autonomía personal. Son acciones que tienen por finalidad prevenir la aparición o el agravamiento de situaciones de dependencia, y el desarrollo coordinado, entre las Administraciones o entidades competentes, de actuaciones de promoción de la autonomía personal y de condiciones de vida saludables dirigidas a las personas dependientes y a la ciudadanía en general, y servicios y programas psicosociales específicos de carácter preventivo y de readaptación dirigidos a las personas dependientes. Quedan excluidos de este subprograma las acciones, prestaciones y servicios realizados por las asociaciones de personas mayores que entrarían en el ámbito de la convocatoria pública efectuada del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para el año 2016.

— Objetivo general: Promocionar la autonomía personal de las personas dependientes y de la ciudadanía en general.

— Objetivos específicos:

• Prevenir la aparición de la dependencia mediante programas de promoción de hábitos saludables dirigidos a todos los ciudadanos y ciudadanas.

• Retrasar, en las situaciones de dependencia ya producidas en personas mayores de 60 años, el progreso de la enfermedad, manteniendo su autonomía el mayor tiempo posible.

• Facilitar la adaptación a las actividades de la vida diaria de laspersonas dependientes atendidas en sus propios domicilios.

2. Acciones de información y sensibilización social destinadas a la ciudadanía en general sobre la dependencia y su cuidado. Son acciones dirigidas a dar a conocer las circunstancias de la dependencia y su cuidado a la sociedad, visibilizando la situación de las personas cuidadoras y fomentando la corresponsabilidad en el cuidado.

— Objetivo general: Favorecer la modificación de ideas, creencias y atribuciones existentes en la sociedad en lo relativo a las personas dependientes, la dependencia, el cuidado y la familia.

— Objetivos específicos:

• Sensibilizar a la ciudadanía en general sobre las situaciones de cuidado de personas dependientes.

• Informar sobre las repercusiones de la dependencia en las personas y la importancia de fomentar la autonomía en la realización de las actividades de la vida diaria.

• Visibilizar las repercusiones físicas, psíquicas y sociales que conlleva el cuidado continuo y permanente de las personas dependientes.

• Reflexionar sobre las modificaciones en la estructura y en la dinámica familiar promoviendo la corresponsabilidad de toda la familia.

• Favorecer la creación y el mantenimiento de redes sociales y familiares de apoyo a las personas dependientes y a las familias cuidadoras.

cve: BAO-BOB-2016a008

3. Boluntarioen bidez eta/edo beste ekintza berritzaile batzuen bidez mendetasuna duten pertsonei eta haien familiei arreta emateko jarduerak. Jarduketa boluntario eta doakoak dira, boluntario diren pertsonek egiten dituzte, elkartasun espirituarekin, beren denbora libreko zati bat mendetasuna duten pertsonen arreta, laguntza eta zaintzari eskainiz. Boluntarioek konpromisoa hartzen dute prestakuntza egokia jasotzeko eta modu antolatuan lan egiteko, talde horien beharrei erantzutearren.

Bestalde, honako hauek izan daitezke jarduera berritzaileak: mendetasuna duen pertsonei eta haien familiei arreta emateko direnak eta gainerako azpiprogramen helburuekin bat ez datozenak.

— Helburu orokorra: Boluntariotzako ekintzen bidez sustatu nahi da herritarrek parte har dezatela mendetasuna duten pertsonek eta haien zaintzaileek dituzten beharrizanei erantzuteko eta beharrizan horien aurrean elkartasuna erakuts dezatela.

— Helburu zehatzak:

• Herritarrak sentsibilizatzea, eta boluntarioen lana sustatzea ikus dezaten euren lanak zer garrantzia duen mendetasuna duten pertsonei eta haien familiei arreta eta laguntza emateko.

• Mendetasuna duten pertsonentzako eta haien familientzako arretari heltzeko, haien helburuekin bat ez etortzeagatik gainerako azpiprogramen esparruan garatu ezin diren ekintza berritzaileak garatzea.

4. Prestakuntza- eta informazio-zerbitzuak, mendetasuna duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonei zuzenduak. Prestakuntzako ekintzen bidez (ikastaroak, mintegiak, tailerrak, etab.) zaintzarako behar dituzten trebetasun eta estrategien inguruko entrenamendua eskaintzen zaie zaintzaileei, bai eta euren buruak zaintzeko estrategien ingurukoa ere. Informazio-zerbitzuek informazioa, ebaluazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzen dizkiete familia zaintzaileei mendeko beren senitartekoaren zaintzari lotutako arlo guztietan.

— Helburu orokorra: Prestakuntza eta informazioa ematea mendetasuna duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonei, mendetasunak eragiten dituen arazo nagusien inguruan edo mendetasunaren zaintzarekin lotutako gai zehatzen inguruan.

— Helburu zehatzak:

• Prestakuntza eta informazioa ematea mendetasunak dituen ezaugarri eta jatorrien gainean nahiz mendetasuna garatzea errazten duten faktoreen eta mendetasunari lotutako beste alderdi zehatz batzuen inguruan.

• Zaintzarako trebetasun eta tekniken gaineko prestakuntza eta entrenamendua eskaintzea zaintzaileei.

• Auto-zaintzak duen garrantziaren gaineko kontzientzia sortzea zaintzaileen artean eta hartarako entrenamendua ematea.

• Mendetasuna duten pertsonen zaintzarako dauden baliabide sozial eta komunitarioen inguruko informazioa ematea familiei.

5. Taldeko eta banakako laguntza psikologikoa emateko zerbitzuak eta autolaguntzarako taldeak, mendetasuna duten pertsonen zaintzaileei zuzenduak. Taldeko laguntza psikologikoa emateko zerbitzuek lantzen dute nola prebenitu eta kudeatu mendetasuna duen pertsona bat zaintzeak eragin ohi dituen aldaketa fisiko eta psikologikoak, eta, modu osagarrian, laguntza psikologiko indibiduala eman dakieke arreta pertsonalizatuagoa behar duten pertsonei. Autolaguntzarako taldeei esker, zaintzaileek ikus dezakete beste pertsona batzuek ere beren antzeko egoerak bizi dituztela, eta taldeko egitura baten parte izan daitezkeenez, babes emozionala eman diezaiokete elkarri.

— Helburu orokorra: Mendetasuna duten pertsonen zaintzaileen ongizate fisiko eta psikologikoari laguntzea; horretarako, laguntza psikologikoa emateko taldeak zein autolaguntzarako taldeak sortuko dira eta, beharrezkoa denean, laguntza psikologiko indibiduala ere emango da.

3. Actuaciones destinadas a la atención de las personas dependientes y sus familias a través de voluntariado y/o otras acciones innovadoras. Por un lado, podrán ser actuaciones voluntarias y gratuitas realizadas por personas que, con espíritu solidario, dedican parte de su tiempo libre a la atención, apoyo y cuidado de las personas dependientes y sus familias y se comprometen a recibir la formación adecuada y a trabajar de forma organizada en la atención a las necesidades de este colectivo.

Por otro lado, podrán ser actuaciones de carácter innovador destinadas a la atención de las personas dependientes y sus familias que no se ajusten a los objetivos del resto de subprogramas.

— Objetivo general: Fomentar la participación y la solidaridad ciudadana en la atención de las situaciones de necesidad de las personas dependientes y sus personas cuidadoras mediante acciones de voluntariado.

— Objetivos específicos:

• Sensibilizar a la ciudadania y promover el voluntariado en la atención y apoyo a las personas dependientes y sus familias.

• Abordar la atención de las personas dependientes y sus familias, a través del desarrollo de acciones innovadoras que no sean susceptibles de ser desarrolladas en el marco del resto de los subprogramas, porque no se ajusten a los objetivos de los mismos.

4. Servicios de formación e información dirigidos a personas cuidadoras de personas dependientes. Las acciones de formación, mediante la realización de cursos, seminarios, talleres, etc. facilitan a la persona cuidadora el entrenamiento en habilidades y técnicas de cuidado, así como en estrategias para su propio autocuidado. Los servicios de información proporcionan información, valoración, orientación y asesoramiento a las familias cuidadoras en lo relativo al cuidado de su familiar dependiente.

— Objetivo general: Ofrecer formación e información a las personas cuidadoras de personas dependientes acerca de los principales aspectos derivados de la dependencia o de aspectos concretos del cuidado relacionados con ella.

— Objetivos específicos:

• Formar e informar sobre las características de la dependencia, las causas, y factores que favorecen su desarrollo, y otros aspectos concretos relacionados con ella.

• Formar y entrenar a las personas cuidadoras en habilidades y técnicas de cuidado.

• Concienciar y entrenar a las personas cuidadoras en estrategias de auto-cuidado.

• Informar a las familias sobre los recursos sociales y comunitarios dirigidos a la atención de las personas dependientes.

5. Servicios de apoyo psicológico grupal e individual, y grupos de autoayuda dirigidos a personas cuidadoras de personas dependientes. Los servicios de apoyo psicológico grupal tratan la prevención y manejo de alteraciones físicas y psicológicas derivadas del cuidado de una persona dependiente, pudiéndose ofrecer, de manera complementaria, una atención psicológica individual en aquellas personas que requieran de una atención más personalizada. Los grupos de autoayuda facilitan a los y las cuidadoras el reconocimiento en otras personas de una situación similar a la suya, y proporcionan la oportunidad de pertenecer a una estructura grupal, brindándose apoyo emocional mutuo.

— Objetivo general: Contribuir al bienestar físico y psicológico de las personas cuidadoras de personas dependientes, mediante la creación de grupos de apoyo psicológico, grupos de autoayuda y, en su caso, apoyo psicológico individual.

cve: BAO-BOB-2016a008

— Helburu zehatzak:

• Babes emozionala ematea, zaintzak berak eragiten dituen emozioak bideratu eta adierazi ahal izateko.

• Zaintzak eragin ditzakeen arazo ugariei aurre egiteko estrategien garapena erraztea.

• Antzeko zaintza egoeretan dauden pertsonen esperientziak trukatzeko espazio bat eskaintzea.

• Talde-egitura bateko partaide eta kide izatearen sentipena eman eta sendotzea.

2) Metodologia. Aurreko 1etik 5era arteko zenbakietan modu generikoan orokorrean aipaturiko ekintza, prestazio edo zerbitzu bakoitzeko azpiprograma espezifiko bat egongo da, honako atal hauek jaso eta zehaztuko dituena:

— Ekintza, prestazio edo zerbitzuaren identifikazioa.

— Helburuak.

— Hartzaileak.

— Atazak.

— Metodologia.

— Ekintzen egutegia.

— Giza baliabideak.

— Baliabide materialak eta azpiegitura fisikoa.

— Ebaluaziorako adierazleak eta tresnak.

Programa osorako, gainera, atal hauek ere jasoko dira:

— Lurralde-eremua eta kokapen fisikoa.

— Antolaketa-egitura eta funtzionamendurako egitura.

— Sarrera eta gastuen aurrekontu osoa, azpiprogramen arabera zehaztuta.

Ebaluazio-sistemak hauek ebaluatuko ditu:

1. Ekintza, prestazio edo zerbitzua zenbateraino doitzen zaion hura justifikatzen duten helburuei, eta adieraziko du ea egokia den arazo horrek eragindako populazioari dagokionez.

2. Eraginkorra den; horretarako, helburuak zenbateraino lortu diren ebaluatuko da.

3. Eta ea efizientea den, lortutako emaitzen eta erabilitako baliabideen arteko erlazioa aintzat hartuta.

Programa nahiz azpiprogramak nola garatu diren egoki ebaluatzearren, ebaluazio-tresna hauetakoren bat erabil daiteke:

— Datu-bilketarako fitxak.

— Elkarrizketa pertsonalak.

— Espedienteak.

— Ebaluaziorako galdera-sortak.

— Balioztatzeko testak eta eskalak.

**7. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko epea eta era***

Diru-laguntza jaso nahi duten erakundeek 2. eranskinean agertzen den ereduaren arabera aurkeztu behar dituzte eskabideak. Horretarako epea foru dekretu hau indarrean jartzen den egunean hasi eta 2016ko irailaren 30ean amaituko da.Eskabideok aurkeztu behar dira edo Gizarte Ekintza Saileko Prestazioen eta Diru-laguntzen Zerbitzuan (Lersundi kalea, 14, Bilbo, 48009), edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako erregistro edo bulegoetako edozeinetan (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legea da hori).

**8. artikulua.—*Betekizunak eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak***

Eskabideak —2. eranskinean jasotako eredu normalizatuaren arabera eginak— agiri hauekin batera aurkeztu behar dira:

1. Erakundeko organo eskudunak diru-laguntza eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

— Objetivos específicos:

• Ofrecer apoyo emocional para la canalización y expresión de las emociones asociadas a la situación de cuidado.

• Facilitar el desarrollo de estrategias de afrontamiento de los múltiples problemas que se pueden asociar a la situación de cuidado.

• Facilitar un espacio para el intercambio de experiencias entre personas en una situación similar de cuidado.

• Proporcionar y consolidar un sentido de pertenencia y de integración en una estructura grupal.

2) Metodología. Por cada una de las acciones, prestaciones o servicios señalados genéricamente en los números 1 a 5 del apartado anterior se prevé un subprograma específico que engloba y detalla los siguientes apartados:

— Identificación de la acción, prestación o servicio.

— Objetivos.

— Personas destinatarias.

— Tareas.

— Metodología.

— Calendario de acciones.

— Recursos humanos.

— Recursos materiales e infraestructura física.

— Indicadores y herramientas de evaluación.

Para el programa en su conjunto, se recogerán también los siguientes apartados:

— Ámbito territorial y localización física.

— Estructura organizativa y de funcionamiento.

— Presupuesto total de ingresos y gastos, por subprograma.

El sistema de evaluación valorará:

1. La adecuación de la acción, prestación o servicio a los fines que la justifican y señalará su idoneidad con relación a la población afectada.

2. Su eficacia con relación al grado de ejecución de los objetivos.

3. Y su eficiencia considerando la relación entre los resultados obtenidos y los recursos empleados.

Con la finalidad de evaluar adecuadamente el desarrollo del programa y de los subprogramas cabe la posibilidad de utilizar algunas de las siguientes herramientas de evaluación:

— Fichas de recogida de datos.

— Entrevistas personales.

— Expedientes.

— Cuestionarios de evaluación.

— Test y Escalas de valoración.

**Artículo 7.—*Plazo y forma de presentación de las solicitudes***

Las entidades interesadas presentarán sus solicitudes, de acuerdo con el modelo que figura como Anexo 2, desde la entrada en vigor del presente Decreto Foral y hasta el día 30 de septiembre de 2016, en el Servicio de Prestaciones y Subvenciones del Departamento de Acción Social, sito en la calle Lersundi, 14 de Bilbao (48009), o en cualquiera de los registros y oficinas señaladas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 8.—*Requisitos y documentación a acompañar a la solicitud***

Las solicitudes, formalizadas según el modelo normalizado que figura en el Anexo 2, irán acompañadas de la siguiente documentación:

1. Certificado del acuerdo adoptado al efecto por el órgano competente de la entidad, relativo a la solicitud de subvención.

cve: BAO-BOB-2016a008

2. Bankuko kontuaren fitxa; erakundeak zein hark aukeratutako banku-erakundeak behar bezala zigilatuta eta sinatuta aurkeztu behar da, 3. eranskineko ereduaren arabera.

3. Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, non adieraziko den erakundeak egunean dituela indarrean dauden xedapenek Gizarte Segurantzarekiko ezartzen dizkioten betebeharrak.

4. Programa forala erakundearen lurralde-eremuan gauzatzeko proiektua, urte natural baterakoa: hau da, gauzatuko den urteko urtarrilaren 1ean hasi behar da.

5. Sarrera eta gastuen aurrekontua, azpiprogramen araberakoa, gauzatze-epeari dagokiona, 4. eranskinean jasotzen den ereduarekin bat.

Toki-erakundean hartarako gaitasun nahikoa duen pertsonak sinatu behar du eskabidea, eta honako hauek ziurtatuko ditu:

1. Erakundeak bete egiten ditu oinarri arautzaile hauetan ezarritako betekizun guztiak.

2. Eskabidean adierazitako datu guztiak egiazkoak dira; orobat hitz ematen du datuok egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduera guztiak erraztuko dituela eta eskabidea aztertzeko eskatzen zaion informazio osagarria emango duela.

3. Ez dago diru-laguntza baten onuradun izateko debeku-egoeretako batean ere; egoera horiek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12.2 artikuluan jasotzen dira.

4. Udal-mugarteko (bat edo gehiagoko) biztanle kopurua, azken errolda ofizialaren araberakoa.

5. Zerga-betebeharrak, zuzenbide publikoko gainerakoak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12.2 e) artikuluan araututakoaren arabera. Eskabidea aurkezten denean, diru-laguntza ematen den unean, betebeharra aitortzen den unean eta ordainketa egiten denean, une horietan guztietan bete behar da baldintza hori, eta hala justifikatuko da espedientean, Ogasun eta Finantza Sailak erabakitzen duen moduan.

Programa forala gauzatzeko proiektuak (hartarako emango den ereduaren araberakoa) nahitaez jaso behar ditu foru dekretu honen 6.1. artikuluko 4. eta 5. zenbakietan zehazten diren ekintza, prestazio eta zerbitzuak. 6.1 artikulu horretako 1, 2 eta 3. zenbakietan jasotako ekintza, prestazioak eta zerbitzuak ematea, berriz, aukerakoa izango da.

Eskabideak osorik formalizatzen ez badira edo eskatzen diren agirietakoren bat falta bada, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio hamar egun (10) balioduneko epearen barruan zuzen ditzala akatsak edo aurkez ditzala derrigorrezko agiriok, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1 artikuluan ezarritakoarekin bat (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legea da hori); eta, horrekin batera, jakinaraziko zaio, hala egin ezik, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Dena dela, horren aurretik, 42. artikuluan xedatutakoaren araberako ebazpen bat eman beharko da.

Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, prozeduraren edozein unetan, Gizarte Ekintza Saileko Prestazioen eta Diru-laguntzen Zerbitzuak egoki ikusten dituen agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkio erakunde eskatzaileari; horrez gainera, eskabideak ebazteko egoki ikusten duen beste edozein baldintza edo tramite lehendik bete gabekoa gauzatzeko eskaria ere zuzen diezaioke. Horretarako, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 76. artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar (10) egun balioduneko epea emango dio, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera zenbatuta. Halaber, beren-beregi adieraziko dio agindutakoa bete ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aurreko lerroaldean ere ezarri den legez.

**9. artikulua.—*Egiteko epea***

Diru-laguntzaren xedea betetzeko epea 2016ko urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

2. Ficha de cuenta bancaria debidamente sellada y firmada por la entidad y también por la entidad bancaria por ella elegida, según modelo que figura en el Anexo 3.

3. Certificado emitido por la Seguridad Social, acreditativo de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la misma impuestas por las disposiciones vigentes.

4. Proyecto de ejecución del programa foral en su ámbito territorial para un período de tiempo de un año natural, es decir, con fecha de inicio el 1 de enero del año de ejecución.

5. Presupuesto de ingresos y gastos por subprograma, correspondiente al periodo de ejecución, según modelo que figura en el Anexo 4.

La solicitud irá firmada por aquella persona con capacidad suficiente de la entidad local, la cual acreditará los siguientes extremos:

1. Que la entidad reúne todos los requisitos establecidos en las presentes bases reguladoras.

2. Que son ciertos todos los datos presentados en la solicitud y se compromete a facilitar las comprobaciones necesarias para verificarlos y a aportar la información complementaria que se solicite con el fin de analizar la solicitud.

3. Que no se encuentra incursa en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria de la subvención previstas en el artículo 12.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

4. El número de habitantes del término o términos municipales, según el último censo oficial.

5. Hallarse al corriente de las obligaciones tributarias y demás de derecho público y de la Seguridad Social, a tenor de lo regulado en el artículo 12.2 e) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo. Dicha circunstancia deberá concurrir en el momento de la presentación de la solicitud y mantenerse en el de la concesión, en el del reconocimiento de la obligación, y en el del pago, lo que se justificará en el expediente del modo que determine el Departamento de Hacienda y Finanzas.

El proyecto de ejecución del programa foral, conforme a modelo que se facilitará, deberá contener obligatoriamente acciones, prestaciones y servicios de los contemplados en los apartados 4 y 5 del artículo 6.1 del presente decreto foral, siendo opcional el desarrollo acciones, presetaciones y servicios de las comprendidos en los apartados 1,2 y 3 del citado artículo 6.1.

Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común para que, en el plazo de 10 días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si así no lo hiciera de le tendrá por desistida de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos del artículo 42 de la misma ley.

En aquellos casos en que se considere necesario, el Servicio de Prestaciones y Subvenciones del Departamento de Acción Social podrá, en cualquier momento o a lo largo del procedimiento, requerir a la entidad solicitante cuanta documentación complementaria estime oportuna, así como para que cumplimente cualquier otro requisito o trámite omitido que estime oportuno para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas, de acuerdo con lo previsto en el artículo 76 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, concediéndole a tal efecto, un plazo de diez (10) días hábiles a partir del día siguiente al de la notificación, con expreso apercibimiento de que, de no hacerlo así, se le tendrá por desistida de su solicitud, en los mismos términos que los fijados en el apartado anterior.

**Artículo 9.—*Plazo de ejecución***

El plazo de ejecución del objeto de la subvención abarcará el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2016.

cve: BAO-BOB-2016a008

Eskabidea aurkezten den egunean dagoeneko hasita dauden proiektuetarako eskabideak ere aurkez ditzakete erakundeek, baldin eta proiektuok ez badira 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi.

**10. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak***

1. Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduneraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, beharrezkoak badira eta oinarri arautzaile hauetan ezarritako burutzapen-aldian egiten badira.

Honako hauek, baina, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko:

a) Banku-kontuetako interes zordunak.

b) Interes, errekargu eta zehapen administratibo eta penalak.

c) Prozedura judizialetako gastuak.

d) Higiezinak erosteko finantza-gastuak.

2. Diru-laguntza honen xedeari egozgarriak diren pertsonal-gastuek —hala langile propioei nola kontratatu diren langileei dagozkienek— diru-laguntza jaso ahal izango dute. Hala ere, ezin dira langileen gastuetan sartu erakunde edo zentroen zuzendaritza batzordeetako edo kontseiluetako kide legez egindako jarduerek eragindako gastuak. Gastuok soilik sar daitezke baldin eta kide horrek lan-kontratua badu eta beharrezkoa eta nahikoa den titulazioak diru-laguntzaren xedeak berezko dituen jarduerak egiteko gaitzen badu.

3. Boluntariotza konpentsatzeko gastuek diru-laguntza jaso ahal izango dute, Eusko Legebiltzarrak 1998ko ekainaren 25ean eman zuen Boluntarioei buruzko 17/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

4. Foru dekretu honen babesean emandako diru-laguntzen zenbatekoa ezin da inola ere izan diruz lagundutako jardueraren edo programaren kostua baino handiagoa, ez zenbateko hori bera bakarrik ez eta beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek, naziokoek zein nazioartekoek, emandako beste diru-laguntza eta laguntzekin batera ere.

**11. artikulua.—*Diru-laguntzak emateko prozedura***

Diru-laguntzok norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidez emango dira: funtsak banatuko dira, hain zuzen ere, eskabideak aurkeztu diren hurrenkeran eta erabilgarri dagoen kredituaren aurrekontu-mugarekin.

Gizarte Ekintza Saileko Prestazioen eta Diru-laguntzen Zerbitzuak espedientea instruitu ondoren, haren berri emango zaio Gizarte Ekintzako foru diputatuari, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari aurkez diezaion, beharrezkoa bada. Kontseiluak, erabaki baten bidez, diru-laguntza ematea edo ukatzea formalizatuko du, eskabidea aurkeztu eta sei hilabeteko epean, gehienez ere. Lehenengo kasuan, erabakiaren eranskin gisa jasoko da Bizkaiko Foru Aldundiak eta erakunde onuradunak diru-laguntza arautzeko izenpetzen duten hitzarmena.

Diru-laguntza eman edo ukatzeko erabakia eskabidea aurkeztu eta biharamunetik aurrerako sei hilabeteko epean jakinarazi behar da, gehienez ere.

Gobernu Kontseiluak prozedura ebazteko emandako erabakiak amaitu egiten du administrazio-bidea, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako bi (2) hilabeteko epearen barruan; edo, nahi izanez gero, aipaturiko errekurtsoa jarri aurretik, errekerimendu-idazkia aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 44. artikuluan zehazten denaren arabera.

**12. artikulua.—*Diru-laguntzen bateragarritasuna***

Foru dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira erakundeak helburu bererako jasotzen dituen beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk emandakoekin.

Las entidades podrán presentar proyectos cuya ejecución se haya iniciado en el momento de presentación de la solicitud, siempre y cuando la fecha de inicio de los mismos no sea anterior al 1 de enero del 2016.

**Artículo 10.—*Gastos subvencionables***

1. Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo de ejecución establecido por las bases reguladoras.

En particular, no se considerarán gastos subvencionables:

a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

b) Los intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

c) Los gastos de procedimientos judiciales.

d) Los gastos financieros derivados de la adquisición de inmuebles.

2. Podrán ser objeto de subvención los gastos de personal propio o contratado imputables al proyecto objeto de esta subvención. No obstante, no podrán incluirse como gastos de personal, los originados por las actividades realizadas en calidad de personas miembro de las juntas directivas o consejos de dirección de las entidades o centros, a no ser que se esté contratada laboralmente y capacitada mediante la titulación necesaria y suficiente para la realización de las labores específicas objeto de la subvención.

3. Podrán ser objeto de subvención los gastos de compensación de voluntariado, conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado.

4. El importe de las subvenciones concedidas al amparo del presente Decreto Foral en ningún caso podrá, aisladamente o en concurrencia con subvenciones y ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, superar el coste de la actividad o programas objeto de la subvención.

**Artículo 11.—*Procedimiento de concesión***

El procedimiento de concesión será el de libre concurrencia, distribuyéndose los fondos en el orden en que fueron presentadas las solicitudes y hasta el límite presupuestario del crédito existente.

Instruido el expediente por el Servicio de Prestaciones y Subvenciones del Departamento de Acción Social, se someterá al conocimiento de la diputada Foral de Acción Social, para su elevación, si procediera, al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, el cual formalizará mediante acuerdo la concesión, en un plazo máximo de 6 meses desde la fecha de presentación de la solicitud. En el primer supuesto figurará como anexo del acuerdo el convenio regulador de la subvención que se formalice entre la Diputación Foral de Bizkaia y la entidad beneficiaria.

La concesión o, en su caso, denegación de la subvención será notificada en un plazo máximo de 6 meses a contar desde el día siguiente a la fecha de presentación de la solicitud.

Contra el acuerdo del Consejo de Gobierno resolutorio del procedimiento, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa en el plazo de dos (2) meses, contados a partir del día siguiente a la fecha de notificación o, potestativamente, y con carácter previo al recurso citado, escrito de requerimiento, en los términos previstos en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

**Artículo 12.—*Compatibilidad de las subvenciones***

Las subvenciones contempladas en el presente Decreto Foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas o ingresos que la entidad interesada pueda obtener para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o internacionales.

cve: BAO-BOB-2016a008

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako ekarpen ekonomikoarekin batera beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede bererako emandako beste ekarpen batzuk lortzen badira eta ekarpen horien guztien batura handiagoa bada jarduerak egiteko memorian jasotzen den aurrekontuko zenbatekoa baino, txikitu egingo da Bizkaiko Foru Aldundiak erabakitako ekarpena, Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 18.3 artikuluarekin bat. Horretarako, onuradunek aurkeztu beharreko memoria eta txostenetan adierazi egin behar da bestelako ekarpen, laguntza edo diru-laguntzarik jaso den eta zein den haien zenbatekoa.

**13. artikulua.—*Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko era***

a) Toki-erakunde interesdunak programa gauzatzeko aurkezten duen proiektua erakundearen funts propioekin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diruzko ekarpen (diru-laguntza) batekin kofinantzatu behar da.

b) Bizkaiko Foru Aldundiak emango duen diru-laguntza kalkulatzeko kontuan hartuko dira erakundeek aurrekontuetan jasotako kostuak, muga hauekin:

— Autonomia pertsonala sustatzeko ekintza, prestazio eta zerbitzuen azpiprograma dela eta, gastuaren aurrekontuaren %50era arte; gehieneko zenbatekoa: 0,028775 bider toki-erakundeari dagokion biztanle erroldatuen kopurua.

— Gizartea, oro har, mendetasunaren eta haren zaintzaren gainean informatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzen azpiprograma dela eta, gastuaren aurrekontuaren %50era arte; gehieneko zenbatekoa: 0,028775 bider toki-erakundeari dagokion biztanle erroldatuen kopurua.

— Mendetasuna duten pertsonei eta haien familiei laguntzera zuzenduriko boluntariotza sozialeko jarduketen azpiprograma dela eta, gastuaren aurrekontuaren %50era arte; gehieneko zenbatekoa: 0,086325 bider toki-erakundeari dagokion biztanle erroldatuen kopurua.

— Mendetasuna duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonei zuzenduriko prestakuntza- eta informazio-zerbitzuen azpiprograma dela eta, gastuaren aurrekontuaren %50era arte; gehieneko zenbatekoa: 0,143875 bider toki-erakundeari dagokion biztanle erroldatuen kopurua.

— Mendetasuna duten pertsonen zaintzaileei zuzendutako taldeko eta banakako laguntza psikologikoa emateko zerbitzuen eta autolaguntzarako taldeen azpiprograma dela eta, gastuaren aurrekontuaren %50era arte; gehieneko zenbatekoa: 0,287750 bider toki-erakundeari dagokion biztanle erroldatuen kopurua.

Aurreko ataletan ezarritakoaren arabera kalkulatu diren zenbateko partzialen batura izango da, hain zuzen ere, Foru Aldundiak proiektua finantzatzeko egingo duen diruzko ekarpenaren zenbatekoa.

c) Aurrekoa gorabehera:

— 5.000 biztanle edo gutxiagoko udalerrien kasuan, aurreko b) letraren arabera lortutako zenbateko osoa bider 1,5 egingo da.

— 5.000 biztanle baino gehiago eta 10.000 biztanle edo gutxiagoko udalerrien kasuan, aurreko b) letraren arabera lortutako zenbateko osoa bider 1,4 egingo da.

— 10.000 biztanle baino gehiago eta 15.000 biztanle edo gutxiagoko udalerrien kasuan, aurreko b) letraren arabera lortutako zenbateko osoa bider 1,1 egingo da.

Zenbait udalerrik osatutako mankomunitate edo partzuergoen kasuan, mankomunitate edo partzuergoaren azken zenbatekoa kalkulatzeko, dagokion indizea aplikatuko zaio udalerri bakoitzari.

Cuando la aportación económica de la Diputación Foral de Bizkaia concurriera con otras otorgadas por entidades públicas o privadas con el mismo objetivo y finalidad, si la suma de las mismas superase el presupuesto establecido en la memoria de realización de actividades presentada, se declarará la incompatibilidad de dicho exceso, reduciéndose el importe de la aportación acordada por la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.3 de la Norma Foral de Subvenciones. A tal fin, en la memoria e informes que deban ser presentados, deberá hacerse constar la cuantía y percepción de tales aportaciones o ayudas y subvenciones.

**Artículo 13.—*Forma de cálculo del importe de la subvención***

a) El proyecto de ejecución del programa presentado por la entidad local interesada será cofinanciado mediante la aplicación de fondos propios y una aportación dineraria (subvención) de la Diputación Foral de Bizkaia.

b) Para el cálculo de la subvención de la Diputación Foral de Bizkaia se tendrán en cuenta los costes presupuestados por las entidades, hasta los siguientes límites:

— Por el subprograma de acciones, prestaciones y servicios de promoción de la autonomía personal, hasta el 50% del presupuesto de gasto, con un importe máximo igual al producto de 0,028775 por el número de habitantes censados correspondientes a la entidad local.

— Por el subprograma de acciones de información y sensibilización social destinadas a la ciudadanía en general sobre la dependencia y su cuidado, hasta el 50% del presupuesto de gasto, con un importe máximo igual al producto de 0,028775 por el número de habitantes censados correspondientes a la entidad local.

— Por el subprograma de actuaciones de voluntariado social destinadas a la atención de las personas dependientes y sus familias, hasta el 50% del presupuesto de gasto, con un importe máximo igual al producto de 0,086325 por el número de habitantes censados correspondientes a la entidad local.

— Por el subprograma de servicios de formación e información dirigidos a personas cuidadoras de personas dependientes, hasta el 50% del presupuesto de gasto, con un importe máximo igual al producto de 0,143875 por el número de habitantes censados correspondientes a la entidad local.

— Por el subprograma de servicios de apoyo psicológico grupal e individual y grupos de autoayuda dirigidos a personas cuidadoras de personas dependientes, hasta el 50% del presupuesto de gasto, con un importe máximo igual al producto de 0,287750 por el número de habitantes censados correspondientes a la entidad local.

El importe total resultante de la suma de los importes parciales calculados con arreglo a lo dispuesto en los apartados anteriores será el importe de la aportación dineraria de la Diputación Foral a la financiación del proyecto.

c) No obstante lo anterior:

— En el supuesto de municipios con un número de habitantes igual o inferior a 5.000 personas, el importe total obtenido, de conformidad con lo dispuesto en la letra b) anterior, se multiplicará por 1,5.

— En el supuesto de municipios con un número de habitantes superior a 5.000 personas e igual o inferior a 10.000, el importe total obtenido de conformidad con lo dispuesto en la letra b) anterior, se multiplicará por 1,4.

— En el supuesto de municipios con un número de habitantes superior a 10.000 personas e igual o inferior a 15.000, el importe total obtenido de conformidad con lo dispuesto en la letra b) anterior, se multiplicará por 1,1.

En el caso de Mancomunidades o Consorcios integrados por varios municipios, se aplicará a cada municipio su índice correspondiente para el cálculo del importe final en esa Mancomunidad o Consorcio.

cve: BAO-BOB-2016a008

Halaber, 9 udalerrik gutxienez osatutako mankomunitate edo partzuergoen kasuan, aurreko letretan xedatutakoa aplikatu ondoren ateratzen den azken zenbatekoa bider 1,2 egingo da; 9 udalerrik baino gutxiagok osatutakoen kasuan, berriz, bider 1,1.

Bizkaiko Foru Aldundiak ekarpena egin ahal izateko, horretarako aurrekontu nahikoa egon behar da aurrekontuko kontsignazioan.

Edozelan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak toki-erakundeari egingo dion ekarpena ezin da handiagoa izan ezarritakoa baino, eta zenbateko hori txikitu egingo da, baldin eta proiektuan justifikatutako gastuen zenbatekoa txikiagoa bada emandako kopurua baino. Kasu horretan, doikuntza egingo du Aldundiak eta onuradunak, berriz, Ogasun eta Finantza Sailak egindako likidazioari dagokion diru-sarrera egin beharko du.

**14. artikulua.—*Ordaintzeko era***

Diru-laguntza aurreratuta ordainduko da, hitzarmena protokolatu ondoren.

Erakunde onuradunaren izaera juridikoa aintzat hartuta, erakundeak ez du bermerik eman beharko, ez baita ikusten hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskua dagoenik.

**18. artikulua.—*Azpikontratazioa***

Diruz lagundutako programa osatzen duten jarduera guztiak azpikontrata daitezke, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen lege araubide orokorra arautzen du) eta haren erregelamenduaren 53. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Aurrekoa gorabehera, ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduerak.

Hirugarren batzuekin hitzartutako jarduera diru-laguntzaren zenbatekoaren %20 baino gehiago bada eta, gainera, zenbateko hori 60.000 euro baino handiagoa bada, betekizun bi bete beharko ditu azpikontratazioak: a) kontratua idatziz egin behar da; b) kontratua hitzartu aurretik, horretarako baimena eman behar du Bizkaiko Foru Aldundiak.

Ezin izango da kontraturik zatitu, hari dagokion zenbatekoa gutxitu eta goiko paragrafoko betekizunak bete beharra saihesteko.

Kontratistek erakunde onuradunarekin soilik izango dituzte betebeharrak. Izan ere, onuradunak hartuko du, Administrazioaren aurrean, diruz lagundutako jarduera burutzeko erantzukizun osoa. Gainera, erakunde onuradunen ardura izango da hirugarrenekin hitzartutako jarduera diruz lagundua gauzatzean errespetatu daitezela diru-laguntza jaso dezaketen gastuen izaera eta zenbatekoaz diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako mugak. Kontratista horiek laguntzeko betebeharra dute, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluak xedatutakoarekin bat (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen lege araubide orokorra arautzen du).

Erakunde onuradunak ezin izango du inola ere hitzartu diruz lagundutako jarduerak osorik edo partez egitea 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27.7 artikuluan zehaztutako pertsona eta erakundeekin (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen lege araubide orokorra arautzen du).

**16. artikulua.—*Diru-laguntza ukatzeko arrazoiak***

Honako hauek dira eskatutako diru-laguntza ukatzeko arrazoiak:

— Eskabidea ez aurkeztea foru dekretu honetan ezarritako epearen barruan.

— Erakundeek proposatutako ekintzak ez egokitzea foru dekretu honetan programarako definitutako helburuei.

— Erakunde eskatzaileak ez betetzea 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan eskatzen diren betekizunetako bat (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen lege araubide orokorra arautzen du).

Asimismo, en el caso de que estas Mancomunidades o Consorcios estén integrados por 9 o más municipios, la cantidad final resultante, una vez aplicado lo dispuesto en los apartados anteriores, se multiplicará por 1,2; de estar constituidos por menos de 9 municipios, se multiplicará por 1,1.

La cantidad a aportar por la Diputación Foral de Bizkaia estará sujeta a la existencia de crédito en la consignación presupuestaria correspondiente.

En todo caso, la cantidad a aportar a la entidad local por la Diputación Foral de Bizkaia no será superior a la establecida, reduciéndose dicho importe en el caso de que la suma de los gastos justificados del proyecto sea inferior a la cantidad otorgada, realizándose a tal fin el correspondiente reajuste y debiéndose realizar el ingreso de la correspondiente liquidación a practicar por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

**Artículo 14.—*Forma de pago***

El pago de la subvención se realizará de modo anticipado, tras la protocolización del convenio.

Dada la naturaleza jurídica de la entidad beneficiaria, no será exigible la prestación de garantía por parte de la misma, por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas.

**Artículo 15.—*Subcontratación***

Podrán subcontratarse la totalidad del importe de las actividades que integran el programa subvencionado en los términos previstos por el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la administración foral y en el artículo 53 de su Reglamento.

No obstante lo anterior, en ningún caso podrá subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido a la misma.

Cuando la actividad concertada con terceros exceda del 20% del importe de la subvención y, además, dicho importe sea superior a 60.000 euros, la subcontratación estará sometida a los siguientes requisitos: a) que el contrato se celebre por escrito; b) que la celebración del mismo sea autorizada previamente por la Diputación Foral de Bizkaia.

No podrá fraccionarse un contrato con el objeto de disminuir su cuantía y eludir el cumplimiento de los requisitos exigidos en el párrafo anterior.

Las personas contratistas quedarán obligadas solo ante la entidad beneficiaria, que asumirá la total responsabilidad de la ejecución de la actividad subvencionada frente a la Diputación Foral de Bizkaia. Además, la entidad beneficiaria será responsable de que en la ejecución de la actividad subvencionada concertada con terceras personas se respeten los límites que se establecen en la normativa reguladora de la subvención, en cuanto a la naturaleza y cuantía de los gastos subvencionables. Estas personas contratistas estarán sujetas al deber de colaboración previsto en el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la administración foral.

En ningún caso podrá concertarse por parte de la entidad beneficiaria la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con las personas y entidades reseñadas en el artículo 27.7 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la administración foral.

**Artículo 16.—*Causas de denegación de la subvención***

Serán motivos de denegación de la subvención solicitada los siguientes:

— Que la solicitud no sea presentada dentro del plazo previsto para ello en el presente Decreto Foral.

— Que las acciones propuestas por las entidades no se adecúen a los objetivos del programa definidos en el presente Decreto Foral.

— Que la entidad solicitante no cumpla alguno de los requisitos exigidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

cve: BAO-BOB-2016a008

— Erakunde eskatzaileak ez betetzea foru dekretu honen 8. artikuluan ezartzen diren betekizunetako bat.

— Dagokion aurrekontu-izendapenean dagoen kreditua agortzea.

— Foru dekretu honetan deialdi honetarako eskatutako baldintzetako edozein ez betetzea.

**17. artikulua.—*Erakunde onuradunaren betebeharrak***

Erakunde onuradunek, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntzen oinarri arautzaileetan ezartzen diren edo haien araudi-tik datozen betebeharrez gainera, honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

— Diru-laguntza honen xedea betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide guztiak —propioak edo kontratatuak— abian jartzea, eta erakundearen eskumenekoa izango dira bai langileekiko harreman juridiko-laborala, bai programa ondo eta era eraginkorrean emateko beharrezkoak izan daitezkeen langileen ordezkapenak, programan aurrez ikusitako ekintza guztiak betez beti ere.

— Gutxienez baliabide hauek esleitu behar zaizkio programari:

a) Programak toki-erakundean izango duen erantzulea —goi mailako edo erdi mailako tituluduna—; pertsona horren ardura izango da proiektuaren zuzendaritza eta ikuskapenari lotutako beharrezko eginkizun guztiak betetzea.

b) Koordinazio-taldea; hauetaz arduratuko da: programatutako ekintza, prestazio eta zerbitzu guztiak egitea; programaren zabalkundea egitea; beste erakunde batzuekin koordinatzea; kudeaketa eta emaitzen ebaluazioa, eta baliabide ekonomikoen kudeaketa.

— Beharrezkoak diren baliabide material eta ekonomikoak jartzea programaren eskura, diru-laguntzaren kargura lor daitezkeen baliabide ekonomikoak edozein direla ere.

— Bizkaiko Foru Aldundiak proiektua gauzatzeko eskaintzen duen lankidetzaren zabalkundea egitea; horretarako, Aldundiaren logotipoa eta lankidetza hori azaltzeko idazkuna jarriko dira argitaratzen diren publizitate eta argitalpen guztietan.

— Aplikatu beharreko arautegiaren arabera behar dituen baimen eta erregistro guztiak lortzea.

— Jarduera burutzeko behar diren arau guztiak betetzea: lanari, aseguruei, arriskuen prebentzioari, erabiltzaileen segurtasun integralari, eta abarrei buruzkoak.

— Nazioko edo nazioarteko beste herri-administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek helburu bererako emandako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasoz gero, berehala jakinaraztea Gizarte Ekintza Sailari.

— Diruz lagundutako jarduerаren inguruko jendaurreko agerpen guztietan hizkuntza ofizial biak (euskara eta gaztelania) erabiltzea.

— Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar den dokumentazio grafiko eta idatzi osoan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista erabiltzea.

— Diruz lagundutako jarduerаren onuradunen portzentajeak sexuaren arabera bereizita aurkeztea, eta beharrezkoa bada, emaitzen analisia egin eta emakume eta gizonen artean berdintasun handiagoa lortzeko hartu beharreko neurriak ere aztertzea. Datu horiek jarduera memorian azaldu beharko dira.

— Diru-laguntza hau dela-eta antolatzen diren zerbitzu, ekitaldi edo jarduera guztietan oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak ezabatzen laguntzea.

— Justifikatzea bai proiektuaren exekuzio materiala, bai eta emandako diru-laguntzaren zenbateko osoa horretarako erabili dela ere.

— Que la entidad solicitante no cumpla con alguno de los requisitos establecidos en el artículo 8 del presente Decreto Foral.

— El agotamiento del crédito existente en la consignación presupuestaria correspondiente.

— El incumplimiento de cualquiera de los requisitos exigidos para esta convocatoria en el presente Decreto Foral.

**Artículo 17.—*Obligaciones de la entidad beneficiaria***

La entidad beneficiaria, además de las obligaciones establecidas en las bases reguladoras o que dimanen de la normativa reguladora de las subvenciones otorgadas por la Diputación Foral de Bizkaia, se compromete a:

— Poner en marcha todos los recursos humanos, propios o contratados, que sean necesarios para el correcto desarrollo del objeto de esta subvención, siendo de su competencia la relación jurídico-laboral del personal y las sustituciones de profesionales que puedan ser necesarias para la correcta y eficaz prestación del programa, cumpliendo todas las acciones previstas en el mismo.

— Como mínimo se asignarán al Programa los siguientes recursos:

a) Persona responsable del Programa de la entidad local, titulada media o superior, encargada de realizar todas aquellas funciones que correspondan a la dirección y supervisión del proyecto.

b) Equipo de coordinación, que se encargará de la realización de las acciones, prestaciones y servicios programados, de la difusión del programa, de la coordinación con otras entidades, de la gestión y evaluación de los resultados y de la gestión de los recursos económicos.

— Poner a disposición del proyecto los medios materiales y económicos que sean necesarios, con independencia de los recursos económicos que puedan obtenerse con cargo a la subvención.

— Difundir la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia en la ejecución del proyecto, mediante la incorporación de su logotipo y una leyenda explicativa en todos los medios publicitarios y publicaciones que se editen.

— Obtener todas las autorizaciones y registros a que estuviere obligada por razón de la normativa que le sea aplicable.

— Cumplir todas las normas laborales, seguros, prevención de riesgos, seguridad integral de las personas usuarias de sus servicios etc., que requiera el desarrollo de su actividad.

— Comunicar al Departamento de Acción Social de forma inmediata la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad procedentes de cualquier Administración Pública o ente público o privado, nacional o internacional.

— Utilizar las dos lenguas oficiales, euskera y castellano, en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

— Utilizar en toda la documentación escrita y gráfica que se produzca en desarrollo del objeto subvencionado, lenguajes e imágenes de carácter no sexista.

— Realizar una desagregación por razón de sexo en la presentación de porcentajes de personas destinatarias de la actividad subvencionada y, en su caso, un análisis de los resultados y medidas a adoptar en el futuro para conseguir una mayor igualdad entre hombres y mujeres. Estos datos deberán proporcionarse en la memoria de actuación.

— Colaborar en la eliminación de barreras arquitectónicas y de comunicación, en todos los servicios, eventos o actividades que se organicen en función de la presente subvención.

— Justificar la ejecución material del proyecto y la dedicación íntegra del importe de la subvención concedida.

cve: BAO-BOB-2016a008

**18. artikulua.—*Zer epetan eta nola justifikatu behar den diru-laguntza***

Diru-laguntzaren erakunde onuradunak, aurreko artikuluan aipatzen diren betebeharrez gainera, konpromisoa hartzen du justifikatzeko proiektuaren exekuzio materiala eta hartarako eman zaion diru-laguntza osorik erabili duela proiekturako. Justifikaziokontu bat aurkeztu behar du horretarako, gastuen frogagiriekin batera, 2017ko uztailaren 1a baino lehen. Kontu horrek honako agiri hauek jaso behar ditu.

a) Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita azpiprogramen arabera.

Jarduera-txosten horrek eduki hau izan behar du:

— Erakundeari buruzko datuak.

— Deskripzioa:

• Egindako jarduerena eta lortutako emaitzena.

• Egin ez diren jarduerena.

• Erabiltzaileena.

• Giza baliabide, antolaketa-egitura eta funtzionamendurako egiturarena.

• Erabilitako baliabide materialena.

— Jardueren ebaluazioa, non adieraziko den zer tresna erabili diren eta zer emaitza lortu diren.

— Hobetzeko iradokizun, orientabide eta ildoak.

— Agirien eranskinak.

— Azpiprogramako prestakuntza-ikastaroetan parte hartu duten zaintzaileen zerrenda, haien izenak jasotzen dituena. Zerrenda horretan datu hauek jaso behar dira:

• Zaintzailearen izena eta abizen bi.

• Hark zaintzen duen pertsonaren, mendetasuna duen pertsonaren, izena eta abizen bi.

• Zaintzailearen nahiz mendetasuna duen pertsonaren NANa.

• Ikastaroaren izena.

• Prestakuntza-orduen kopurua.

• Ikastaroa emango den udalerria.

Aurkeztu beharreko jarduera-txostenaren eredua diru-laguntzaren hitzarmen arauemailea izenpetu ostean emango zaie diru-laguntzaren onuradun diren erakundeei.

b) Egindako jardueren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, honako hauek dituena:

— Proiektuari edo jarduerari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria, azpiprogramen arabera, 5.1 eranskinarekin bat.

— Gastuen zerrenda sailkatu bana, azpiprogramaren arabera, gastuen egoera-orriko kontzeptu bakoitzeko, non hauek adieraziko diren: hartzekoduna, agiria, haren zenbatekoa eta jaulkipen-data. Zerrenda hori 5.2 eranskinaren araberakoa izango da.

— Aurreko idatz-zatian aipatutako zerrendan jaso diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak.

Pertsonal-gastuak diruz laguntzeko modukoak badira diru-laguntzaren hitzarmen arauemaileko zortzigarren klausulan ezarritakoaren arabera, ziurtagiri bat aurkeztu behar da gastu horiek justifikatzeko, kasuan kasuko toki-erakundeko idazkari edo kontu-hartzaileak emandakoa.

Halaber, kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak egozten badira, haiek egozteko irizpideak eta haien zenbatekoa adierazi behar dira.

**Artículo 18.—*Plazo y forma de justificación de la subvención***

La entidad beneficiaria de la subvención, además del cumplimiento de las obligaciones a las que hace referencia el artículo anterior, se compromete a justificar la ejecución material del proyecto y la dedicación íntegra del importe de la subvención concedida al mismo mediante la presentación de una cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, que deberá presentar antes del 1 de julio del año 2017, y que contendrá la siguiente documentación:

a) Una memoria de actuación, justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades desarrolladas y de los resultados obtenidos por subprograma.

La memoria de actuación deberá ajustarse al siguiente contenido:

— Datos de la entidad.

— Descripción:

• De las actividades realizadas y resultados obtenidos.

• De las actividades no realizadas.

• De las personas usuarias.

• De los recursos humanos, estructura organizativa y de funcionamiento.

• De los medios materiales utilizados.

— Valoración de las actividades, con indicación de las herramientas utilizadas, y de los resultados.

— Sugerencias, orientaciones y líneas de mejora.

— Anexos documentales.

— Relación nominativa de las personas cuidadoras que han participado en los cursos de formación del subprograma. Esta relación contendrá los siguientes datos:

• Nombre y dos apellidos de la persona cuidadora.

• Nombre y dos apellidos de la persona dependiente que cuida.

• DNI de la persona cuidadora y de la persona dependiente.

• Curso al que asiste.

• Número de horas de formación.

• Municipio de impartición del curso.

El modelo de memoria de actuación a presentar se facilitará con posterioridad a la firma del convenio regulador de la subvención a las entidades beneficiarias de la subvención.

b) Una memoria económica, justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

— Un estado de ingresos y gastos, por subprograma, imputados al proyecto, según Anexo 5.1.

— Una relación clasificada de gastos por subprograma y para cada uno de los conceptos del estado de gastos, con indicación del acreedor o acreedora y del documento, su importe y fecha de emisión, según Anexo 5.2.

— Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior.

Aquellos gastos de personal que de acuerdo con lo previsto en la cláusula octava del convenio regulador de la subvención puedan ser subvencionables deberán ser justificados mediante la presentación del certificado correspondiente emitido por el secretario o secretaria o interventor o interventora de la entidad local correspondiente.

Igualmente, en el caso de imputarse costes generales y/o indirectos, se indicarán los criterios de imputación y cuantía.

cve: BAO-BOB-2016a008

— Diruz lagundutako azpiprogramei egotzitako sarrerak sarrera eta gastuei buruzko 5.1 eranskinean zehaztutakoak direla ziurtatzeko agiri bat; ziurtatu behar da, gainera, ez dagoela azpiprograma horiei egotz dakiekeen bestelako sarrerarik.

— Erakunde onuradunak Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 29.3 artikuluaren arabera eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuen zerrenda; Gizarte Ekintza Sailak, ondoren, onuradunari eska diezazkioke aurrekontu horiek.

Aurkezten diren eskaintzen artean aukeratzeko efizientzia-eta ekonomia-irizpideen arabera jokatuko da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

— Hala badagokio, eta aplikatu gabeko soberakinik badago, itzulketaren ordainketa-gutuna edo dagokion transakzioa egiaztatzeko agiria, bai eta haien ondoriozko interesak ere.

**19. artikulua.—*Ez-betetzeak eta itzulketak***

Diru-laguntza gisa jasotako diru-kopuruak eta diru-laguntza ordaindu zenetik itzultzea erabakitzen den arte sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 32. eta 33. artikuluetan jasotako kasuen artean ezar daitezkeenetan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, erakunde onuradunak arautegia bete badu eta konpromisoak zalantzarik gabe erabat betetzeko jokabidea duela ikusten bada, berandutze-interesen kalkulua diru-laguntza ordaintzen den unetik gastuaren justifikazio-kontua aurkezten den egunera arteko eperako egingo da.

Diruz lagundutako jarduerak edo programak egin direla justifikatzeko epeak igaro badira baina ez bada azpiprograma bakoitza osorik burutu dela egiaztatu eta justifikatu, edo egin eta justifikatutako gastua azpiprograma bakoitzean konprometitutakoa baino txikiagoa bada, eta baldin eta —kasu batean zein bestean— betetzat jotzen bada diru-laguntzen xedea, doitu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, azpiprograma bakoitzean benetan justifikatu edo izandako kostuen arabera, eta ezin izango da haien arteko konpentsaziorik egin: proportzionaltasun-irizpidea aplikatuko da diru-laguntza emateko irizpide eta mugei dagokienez.

Itzulketa bere borondatez egin dezake erakunde onuradunak, ordainketa-gutun baten bidez, aurretiazko likidaziorik gabe; Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari eska diezaioke gutun hori.

**20. artikulua.—*Kontrol ekonomikoa eta finantzarioa***

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak, kontrol ekonomiko eta finantzarioa egiteko dituen organoen bidez, edozein unetan ikuskatu eta kontrolatu dezake bai diru-laguntza zertarako erabiltzen den, bai diruz lagundutako programa betetzen den.

Horretarako, erakunde onuradunak organo horien eskura jarri behar ditu eskatzen zaizkion agiri guztiak, diru-laguntza emateko arrazoi diren gastuak egokiro kontrolatu eta ikuskatzeko. Gainera, organo horiei askatasuna eman behar die nahi dutenean sartu ahal daitezen diruz lagundutako jarduera egiten den lokal, establezimendu edo lekuetara edo diru-laguntzaren kargura finantzatutako eragiketen errealitatea egiaztatu ahal dezaten.

**21. artikulua.—*Ikuskapena, jarraipena eta ikuskaritza***

Toki-erakundeak berehala jakinarazi behar dizkio Gizarte Ekintza Sailari programako jardueren ohiko garapena aldatzea dakarten gertakari guztiak eta, bereziki, jarduerak etetea eragiten dutenak, nahiz eta etete hori behin-behinekoa izan.

— Certificado de que los ingresos imputados a los subprogramas subvencionados son los indicados en el Anexo 5.1 de ingresos y gastos, y que no hay otros ingresos que pudieran ser imputables a dichos subprogramas.

— Relación de los tres presupuestos que, en aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral de Subvenciones, deba haber solicitado la entidad beneficiaria, que podrán ser solicitados posteriormente por el Departamento de Acción Social.

La elección entre las ofertas presentadas se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

— En el caso de que proceda, la carta de pago de reintegro o documento acreditativo de la transacción correspondiente, en el supuesto de remanentes no aplicados, así como los intereses derivados de los mismos.

**Artículo 19.—*Incumplimiento y reintegros***

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas en concepto de subvención, con la exigencia de los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos previstos en los artículos 32 y 33 de la norma foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la administración foral.

No obstante lo establecido en el apartado anterior, en los supuestos que la entidad beneficiaria haya cumplido con la normativa aplicable, y siempre que se observe una actuación por su parte inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos, el cálculo de los intereses de demora se realizará desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha límite establecida en la convocatoria para la presentación de la cuenta justificativa del gasto.

Si transcurridos los plazos establecidos para la justificación de la realización de las actividades o programas subvencionados no se hubiera acreditado y justificado en su totalidad su ejecución por cada subprograma en la forma prevista, o el gasto realizado y justificado hubiera sido inferior al comprometido en cada subprograma, siempre que, en ambos supuestos, se entiendan cumplidas la finalidad y objeto de las ayudas, se procederá al reajuste de la cuantía de la subvención en función de los costes efectivamente justificados o ejecutados en cada subprograma, no siendo posible compensaciones entre ellos, aplicándose el criterio de proporcionalidad en relación con los criterios y límites establecidos para su otorgamiento.

Dicho reintegro podrá realizarlo la entidad beneficiaria de manera voluntaria, mediante la pertinente carta de pago sin liquidación previa que podrá solicitar al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

**Artículo 20.—*Control económico y financiero***

El Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, a través de sus órganos de control económico y financiero, podrá en cualquier momento inspeccionar y controlar el destino de la subvención, así como el cumplimiento del programa subvencionado.

A tal efecto, la entidad beneficiaria asume la obligación de poner a disposición de dichos órganos toda la documentación que le sea requerida, con el fin de facilitar un correcto control e inspección sobre los gastos para los que se concede la subvención. Asimismo, permitirá el libre acceso a los locales y establecimientos o lugares en los que se desarrolle la actividad subvencionada o pueda verificarse la realidad de las operaciones financiadas con cargo a la subvención.

**Artículo 21.—*Supervisión, seguimiento e inspección***

La entidad local comunicará inmediatamente al Departamento de Acción Social aquellas incidencias que supongan una alteración del desarrollo normal de las actividades del programa, y, en especial, las que impliquen una interrupción de las mismas, aunque sea con carácter provisional.

cve: BAO-BOB-2016a008

Gainera, Gizarte Ekintza Sailak ikuskatu egingo ditu programako jarduerak; beraz, askatasun osoa izango du jarduerok egiten diren lekura sartzeko, eta jarduerak nola egiten diren egiaztatzeko egokitzat jotzen duen informazio eta dokumentazio guztia eska dezake.

Toki-erakundeak programaren jarraipenaren erantzule bat izendatu behar du, eta pertsona hori izango da hitzarmenaren garapen eta exekuzioari lotutako alderdi guztien arduraduna Gizarte Ekintza Sailaren aurrean.

**22. artikulua.—*Datuen babesa***

Programa honen hartzaileei buruzko informazioa eta datuak 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Eusko Legebiltzarraren 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak babesten dituzte; hortaz, alderdi biek konpromisoa hartzen dute informazio eta datuoi buruzko sekretu profesionala gordetzeko eta informazio-datuok programaren garapenari lotuta soilik erabiltzeko.

Toki-erakundeak programa exekutatzeko kontratatu dituen erakundeek, programa amaitzen dutenean, toki-erakundeari eman behar dizkiote sortutako informazio eta agiri guztiak; halaber, ezabatu egin behar dituzte datuok biltzen dituzten fitxategi informatikoak eta egoera hori egiaztatzeko erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu behar dute.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehena:* Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailean ezarritakoaren arabera, foru dekretu honen babesean ematen diren diru-laguntzen zenbateko osoa aurrekontu-partida honen kargura ordainduko da: Saila (03), Organikoa (0304), Programa (310309), Ekonomikoa (43203), PEP (2009/0048); partida horren izendapena gehienez ere 400.000,00 eurokoa izango da.

*Bigarrena:* Dekretu honetako diru-laguntzak emateko badago baldintza bat: ekitaldi bakoitzeko betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea; halakorik ez badago, diru-laguntzen emakida eten egingo da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Derogaturik geratzen dira foru dekretu honetan xedatu denaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AMAIERAKO XEDAPENAK

*Lehenengoa:* Ahalmena ematen zaio Gizarte Ekintzako foru diputatuari honako foru dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi, interpretatu eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, bai eta hitzarmenaren ondoriozko diru-laguntzen hitzarmen arauemaileak —1. eranskinean agertzen den ereduaren araberakoak— formalizatu ditzan ere.

*Bigarrena:* Foru dekretu honetan xedatuta ez dagoenerako, honako hauen arau orokorrak aplikatuko dira ordezko gisa: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, eta arau horiekin bat datozen, aplikatzekoak diren eta indarrean dauden gainerako lege-xedapen guztiak ere aplikatuko dira.

*Hirugarrena:* Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, baina inoiz ez 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen.

Bilbon, 2015eko abenduaren 22an.

Gizarte Ekintzako foru diputatua,
ISABEL SANCHEZ ROBLES

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

Adicionalmente, el Departamento de Acción Social realizará una labor de inspección de las actividades del programa y, en consecuencia, tendrá libre acceso al lugar de realización de las actividades, pudiendo recabar la información y documentación que considere oportuna para verificar el desarrollo de las mismas.

La entidad local designará una persona como «responsable de seguimiento del programa», que responderá frente al Departamento de Acción Social en todos los aspectos de desarrollo y ejecución del convenio.

**Artículo 22.—*Protección de datos***

La información y datos correspondientes a las personas destinatarias del presente programa se encuentran amparados por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, así como por la del País Vasco 2/2004, de 25 de febrero, por lo que ambas partes se comprometen a guardar secreto profesional sobre los mismos, haciendo uso de ellos exclusivamente en relación con el desarrollo del programa.

Las entidades contratadas por la entidad local para ejecutar el proyecto, deberán entregar a la finalización del mismo toda la información y documentación generada a la entidad local, eliminando los ficheros informáticos que alberguen dichos datos y acreditando dicha circunstancia mediante una declaración responsable.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera:* De acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, el cómputo total de las subvenciones que se conceden al amparo del presente Decreto Foral, se efectuará con cargo a la partida presupuestaria consignada como: Departamento (03), Orgánico (0304), Programa (310309), Económico (43203), PEP 2009/0048, cuya asignación tendrá como límite la cantidad de cuatrocientos mil (400.000,00) euros.

*Segunda:* La concesión de las subvenciones a las que se refiere el presente Decreto queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del mismo en el ejercicio correspondiente.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto Foral.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera:* Se faculta a la diputada foral del Departamento de Acción Social para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral, así como para formalizar los convenios reguladores de subvenciones resultantes de la convocatoria, de acuerdo con el modelo que figura como Anexo 1.

*Segunda:* En todo lo no previsto en el presente Decreto Foral serán de aplicación supletoria las normas generales contenidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Reglamento Foral de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, así como las correspondientes disposiciones legales vigentes que resulten de concordante y pertinente aplicación.

*Tercera:* Este Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia», y nunca antes del 1 de enero de 2016.

En Bilbao, a 22 de diciembre de 2015.

La diputada foral de Acción Social,
ISABEL SANCHEZ ROBLES

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

cve: BAO-BOB-2016a008

I. ERANSKINA / ANEXO I

**DIRU-LAGUNTZAREN HITZARMEN ARAUEMAILEAREN EREDUA / MODELO DE CONVENIO REGULADOR DE SUBVENCIÓN**

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE EKINTZA SAILAK ................................RI EMATEN DION DIRU-LAGUNTZAREN HITZARMEN ARAUEMAILEA. DIRU-LAGUNTZA EMATEN DA, HAIN ZUZEN ERE, ONURADUNAK PREBENTZIO-JARDUEREN, BOLUNTARIOEN ETA ADINEKO PERTSONAK ZAINTZEN DITUZTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZA PSIKOSOZIALAREN BIDEZ FAMILIAREN BAITAKO MENDETASUN-EGOEREI ARRETA EMATEKO PROGRAMA FORALA GARA DEZAN. 2016KO DEIALDIA**

**CONVENIO REGULADOR DE LA SUBVENCIÓN OTORGADA POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA – DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL A …………………… PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA FORAL DE ATENCIÓN A LA DEPENDENCIA EN EL MEDIO FAMILIAR MEDIANTE ACTUACIONES DE PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA PERSONAL, VOLUNTARIADO Y DE APOYO PSICOSOCIAL A LAS PERSONAS CUIDADORAS DE PERSONAS DEPENDIENTES. CONVOCATORIA 2016**

ZAINDUZ PROGRAMA FORALA / PROGRAMA FORAL ZAINDUZ

Bilbon, …(e)ko ………aren …(e)(a)n.

HAUEK BILDU DIRA:

Batetik, ………………………………….. andrea, Gizarte Ekintzako foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta ordezkari moduan.

Bestetik, ………………………………….. jauna/andrea, ……………………………(e)ko Udal/Mankomunitate/Partzuergoaren alkate/presidentea, udal/mankomunitate/partzuergo horren izenean eta ordezkari moduan.

Alderdi biek elkarri aitortu diote behar besteko ahalmen juridikoa dutela agiri hau formalizatzeko, eta elkarri onartu dizkiote, adostasunez, dituzten ordezkaritzak.

HAU ADIERAZTEN DUTE:

*Lehenengoa:* Eusko Legebiltzarraren Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 7. artikuluan zehazten ditu gizarte zerbitzuak arautuko dituzten printzipio nagusiak, eta a) letran ezartzen du gizarte-zerbitzuen sistemaren erantzukizuna botere publikoena dela, eta b) letran, berriz, ezartzen du botere publikook bermatuko dutela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan arautatako prestazioen eta zerbitzuen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua.

Bestalde, 7. artikuluaren e) eta f) letretan ezartzen du prestazioa eta zerbitzu horiek bideratuko direla bai bazterketa sortzen duten edo bizimodu autonomoa mugatzen duten egiturazko kausen azterketa eta prebentzioa egitera, bai herritarrak beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzera, eta, edozelan ere, arreta pertsonalizatua eskaini behar dutela, pertsona eta/edo familia bakoitzaren beharrizan bereziei egokituta.

*Bigarrena:* Arestian azaldutakoarekin bat, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak berak ezartzen du (10.2 artikulua) gizarte-zerbitzuen erabiltzaile direla bai Sistemako prestazioa edo zerbitzua zuzenean hartu behar dutenak, bai haien zaintzaileak (familiak, normalean), eta Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren barruan zaintzaileei laguntzeko zerbitzua jasotzen du (22. artikulua), udal eskumeneko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzu moduan. Era berean, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuko 33.2 a) artikuluan, zaintzaileei laguntzeko zerbitzua jasotzen du udal eskumeneko zerbitzu gisa.

*Hirugarrena:* Era berean, 12/2008 Legeak, 7.h) artikuluan, ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak koordinazio- eta lankidetza-betebeharraren arabera jardungo dutela elkarren artean; bestalde, 22. eta 30. artikuluetan ezartzen du bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak —mendetasuna baloratu, diagnostikatu eta artatzeko zerbitzuak, besteak beste— foru-aldundien eskumenekoak direla, bai eta gizarteratzea eta autonomia errazteko eta beren kasa laguntzen dihardutenei sostengua eta ordaina emateko prestazio ekonomikoak ere.

En Bilbao, a … de ……… de …

REUNIDOS:

De una parte, la Ilma. Sra. Dña. ……………………………..,diputada foral del Departamento de Acción Social, que actúa en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia.

De otra parte, D./Dña. ………………………………………., Alcalde/sa-Presidente/a del Ayuntamiento/Mancomunidad/Consorcio de ……………………………….., con NIF: ……………., que actúa en nombre y representación del citado ayuntamiento/mancomunidad/consorcio.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones en cuya virtud actúan, de común acuerdo,

MANIFIESTAN:

*Primero:* Que la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, del Parlamento Vasco, de Servicios Sociales, en su artículo 7, determina los principios generales por los que se regirá el sistema de servicios sociales, señalando en su párrafo a) que el sistema de servicios sociales es de responsabilidad pública y en su párrafo b) que los poderes públicos deben garantizar el derecho a las prestaciones y servicios recogidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios que la propia Ley contiene.

El mismo artículo 7 establece, en sus párrafos e) y f), que dichas prestaciones y servicios se orientarán a la prevención de las causas de exclusión o limitación del desarrollo de una vida autónoma y a la integración de la ciudadanía en su entorno personal, familiar y social, y, en cualquier caso, ofrecerán una atención personalizada, ajustada a las necesidades particulares de la persona y de la familia.

*Segundo:* En el sentido apuntado en el manifiesto anterior, la propia Ley 12/2008, de 5 de diciembre, dispone que serán personas usuarias, tanto las propias personas destinatarias directamente de las prestaciones y servicios del Sistema, como las personas cuidadoras (normalmente las familias) de las mismas (artículo 10, número 2), y recoge, dentro de su Catálogo de prestaciones y servicios (artículo 22), el servicio de apoyo a personas cuidadoras, como un servicio social de atención primaria, de competencia municipal. En este mismo sentido, el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, recoge en su artículo 33.2 a) el servicio de apoyo a personas cuidadoras dentro de los servicios de competencia municipal.

*Tercero:* Que, asimismo, la Ley 12/2008, en su artículo 7, párrafo h), establece que las administraciones públicas vascas actuarán de conformidad con el deber de coordinación y cooperación entre sí, y que los servicios sociales de atención secundaria, entre ellos, los de valoración, diagnóstico y atención a la dependencia son competencia de las Diputación Forales (artículos 22 y 30), así como las prestaciones económicas para facilitar la integración social y la autonomía y para apoyar y compensar a las personas que ofrecen apoyo social informal.

cve: BAO-BOB-2016a008

*Laugarrena:* Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 3ko 70/2012 Foru Dekretuak Gizarte Ekintza Sailari esleitzen dio mendetasun-egoeran dauden pertsonen prebentzioa, tratamendua eta gizarteratzea bideratzeko politikak zehaztu eta betetzeko eskumena, bai eta gizarte-zerbitzuen arloan beste administrazio publiko batzuekin koordinatzea ere.

*Bosgarrena:* Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza bat eman dio ………………………ri, bere eremu geografikoan garatzeko Zainduz programa forala, prebentzio-jardueren, boluntarioen eta adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzako laguntza psikosozialaren bidez familiaren baitako mendetasun-egoerei arreta emateko proiektu baten bidez. Bada, diru-laguntzaren deialdian ezarritakoa aurreikuspenak betetzearren beharrezkoa da diru-laguntza horren hitzarmen arauemailea formalizatzea.

*Seigarrena:* 2016. urterako kreditu nahikoa eta egokia dago hitzarmen hau izenpetzeak sortzen dituen betebehar ekonomikoei aurre egiteko, aurrekontu-partida honetan, hain zuzen: Saila (03), Organikoa (0304), Programa (310309), Ekonomikoa (43203), PEP 2009/0048.

Eta arestian aipatutakoa aintzat hartuta, alderdi biek egokitzat jotzen dute diru-laguntzaren hitzarmen arauemaile hau izenpetzea, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK:

**Lehenengoa.—*Hitzarmenaren helburua***

Honako hau da hitzarmen honen helburua: Bizkaiko Foru Aldundiak ………………………ri ematen dion diru-laguntzaren araubidea ezartzea. Diru-laguntza ematen zaio, hain zuzen ere, onuradunak bere eremu geografikoan garatzeko prebentzio-jardueren, boluntarioen eta adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzako laguntza psikosozialaren bidez familiaren baitako mendetasun-egoerei arreta emateko programa (Zainduz programa forala).

**Bigarrena.—*Zainduz programa foralaren definizioa eta helburu orokorra***

Programa sortu zen mendetasun-egoerak familia barruan artatzeko eta mendeko adinekoen zainketaz arduratzen diren zaintzaileei laguntzeko. Horretarako, erantzukizun publikoko jarduera, prestazio eta gizarte-zerbitzuak daude, eta haien guztien helburua da aldi berean eragitea, zainketaren kalitatea hobetzeko eta zainketak jasotzen dituen pertsonak bere inguru sozial eta familiarrean jarraitzeko.

Programaren helburu orokorra da zenbait jarduera, prestazio eta zerbitzu modu homogeneoan garatzea Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremu geografikoan, beren etxeetan bizi diren eta mendetasuna duten adinekoei eta haien familiei eta zaintzaileei laguntzeko. Helburua da, hain zuzen ere, zaintza afektiboa eta gertukoa eskaintzea eta adinekoak beren etxeetan gera daitezela lortzea, haien bizi kalitatea hobetzearren.

